

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Leitzako zaindariaren jaien hasieran ETAko terroristak omentzeko egindako ekintzak gaitzetsi ditu

Gertaerak delitua diren argitzeko ikerketa hastea agindu dio Foruzaingoari

Jueves, 11 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak erabat gaitzetsi ditu ETA banda terroristako kideak omentzeko ekitaldiak, atzo, Leitzako zaindariaren jaien hasieran egindakoak. Terroristen argazkiak eta haien aldeko banderak erakutsi zituzten, Udaletxean nahiz jaien hasierako suziria jaurtiko zen plazan. Horrez gain, zenbait txanodunek pankarta handia kokatu zuten esparru horretan.

Nafarroako Gobernuarentzat "gaitzesgarriak" dira ekintza horiek, jai-ekintza bat

legaltasunik ezetik hurbil dagoen terrorismoaren omenaldi bihurtu zutenak. Gobernua, halaber, Leitzako Udalak, egiteagatik edo ez egiteagatik, terrorismoaren biktimei eta bereziki ETAREN biktimak diren leitzarrei egindako apalkuntza baimentzeak atsekabetu du.

Hori horrela, Foruzaingoari gertaera horiek ikertzea eta Udal honetako Sinboloen Legea betetzen duen aztertzea eskatu dio.

Poliziaren informazio hori bilduta, Nafarroako Gobernuak atzo Leitzan gertatutakoa deitu izan daitekeen aztertuko du zerbitzu juridikoen bidez, hala badagokio, agintari judizialei jakinarazteko.

Nafarroako Gobernuak terrorismoaren biktimei solidaritatea agertu die, eta ETAK hildakoen oroitzapenekin duen konpromisoa berretsi du.



Nafarroako Gobernua Leitzako Udalak gertaera horien aurrean izandako jarrerak atsekabetu du.